


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduerak bi izango dira: ekoizpena eta gizartean arazo bat konpontzea.

Ekoizpenari dagokionez, gure lokalean bertan ekoitziko ditugu dendan salduko ditugun produktu guztiak. Ekoizpen hori egiteko lehengai batzuk erabiliko ditugu eta ekoizpena egiteko orduan kontuan hartuko dugu kutxadura gurutzatua ez egotea, gure sukaldean glutena duten produktuak ekiditzen. Horretarako gure sukaldea garbia izango dugu eta landuko ditugun produktu guztiak glutenik gabekoak izango dira.



Horri lotuta, gizartean arazo larri bat dago, zeliakoak diren pertsonak arrisku bat hartzen dute okindegi normaletara joatean ez dakitelako kontsumituko duten produktuak glutenarekin kontaktuan egon den ala ez. Gure helburua dan arazo hori konpontzea eta gure produktu guztiak glutenik gabe izango dira arazo hori sahiesteko.

Bigarren mailako jarduera bat bezala sare sozialak eta plataformak erabiliko ditugu gure enpresa iragartzeko eta bezero gehiago erakartzeko. Modu horretan, salmentak handituko ditugu eta enpresa handitzeko aukera izango dugu, enpresaren iraupena luzatzeko.

